## EZ GERATU EZAGUTU GABE!
## ¡NO TE LO PIERDAS!

Entziako mendilerroak goi-ordokia osatzen du Arabako Lautadaren hegoaldean; Entzia pagadi trinkoz eta larre zabalez osatuta dago. Gainazalean sakabanatuta, monumentu megalitiko ugari topa ditzakegu, lautada hauetan artzainak Neolito garaitik izan diren adierazgarri.



Entziaten Artzaintza Naturbidetik desbideratzen bagara, iparraldeko mendi-ebakian barrena Legaireko soilguneetara iritsiko gara; han animaliak lasai-lasai egoten dira bazkatzen, menhir, harrespil eta trikuharri artean.



*La Sierra de Entzia forma un altiplano al Sur de la Llanada Alavesa, cubierta por espesos hayedos y extensos pastos. Dispersos sobre su superficie podemos encontrar una gran cantidad de monumentos megalíticos, huella de la presencia de pastores en estos rasos desde el neolítico.*

*Si nos desviamos por la Senda del Pastoreo en el Puerto de San Román, nos conducirá a lo largo del cortado Norte a los rasos de Legaire donde el ganado pasta libremente alrededor de menhires, cromlechs y dólmenes.*



Araiako Amamioko San Joan ermita eta Uribarri Haranako Andra Mari ermita euskal erromanikoaren adierazgarri bikainak dira.

*Las ermitas de San Juan de Amamio en Araia y de Andra Mari en Ullibarri-Arana son buenos ejemplos del románico vasco.*



## TELEFONO INTERESGARRIAK
## TELÉFONOS DE INTERÉS

| | |
|---|---|
| Arabako Lautadako Turismo Bulegoa (Agurain/Salvatierra)<br>*Oficina de Turismo de la Llanada Alavesa (Agurain/Salvatierra)* | 945 302 931 |
| Arabako Mendialdea Eskualdeko Turismo Bulegoa (Antoñana)<br>*Oficina de Turismo Comarcal de Montaña Alavesa (Antoñana)* | 945 405 424 |
| Aizkorri-Aratzeko Parketxea (Araia)<br>*Parketxe de Aizkorri-Aratz (Araia)* | 646 478 812 |
| Larrialdiak<br>*Emergencias* | 112 SOS DEIAK |

# Bidezatia / *Tramo*
## ENTZIATE / PUERTO DE SAN ROMÁN > ALDA

km 8,3 **ENTZIATE.** Mendatera iritsitakoan, GR 282 Artzaintza Naturbidearekin bat egingo dugu mendilerroaren mendi-ebakian barrena. Pago ikusgarriez osatutako basoan barrena egingo dugu aurrera, eta tarteka, Arabako Lautadaren ikuspegi zoragarriak izango ditugu. Arian-arian, pagoak desagertu egingo dira eta Zezamako lautadara iritsiko gara; bertan, abereak lasai-lasai egoten dira bazkatzen. Puntu horretan "gero arte" esango diogu Artzaintza Naturbideari. Tarte ugaritan ikusezin bihurtzen diren bide batzuetatik jarraituko dugu, hegoalderantz, eta bidean, Entzia eta Iturrietako errepideak zeharkatu beharko ditugu. Ondoren, oso ongi markatutako pista batetik jarraituko dugu Kortagañaraino; Haranatik Iturrietako mendilerrora sartzeko mendateetako bat da Kortagaña.

km 17,1 **KORTAGAÑA.** Pista utzi eta pago artean behera egingo dugu; eskuinaldean ureztaketarako putzu txiki bat ikusiko dugu. Haranean gaudela, eta partzela-bidetik goazela, Uribarri Haranako Santa Maria ermitak ongietorria egingo digu. Herria zeharkatu ondoren, beste partzela-bide batek Aldara eramango gaitu, etaparen amaierara.

km 8,3 ***PUERTO DE SAN ROMÁN.*** *Una vez alcanzado el puerto, el GR 282, Senda del Pastoreo, nos acompañará a lo largo del cortado de la sierra. El trazado discurre por un bosque de imponentes hayas que nos permite disfrutar a tramos de unas vistas espectaculares sobre la Llanada Alavesa. Poco a poco las hayas desaparecen anunciándonos la llegada a los rasos de Zezama, lugar donde el ganado pasta a sus anchas. En este punto diremos "hasta luego" a la Senda del Pastoreo. Por caminos que se desdibujan a tramos, continuaremos en dirección Sur y habremos de cruzar las carreteras de Entzia e Iturrieta. Después, por una pista bien definida alcanzaremos Kortagaña, uno de los puertos de entrada de la Sierra de Iturrieta desde el Valle de Arana.*

km 17,1 ***KORTAGAÑA.*** *Abandonamos la pista descendiendo entre hayas y dejando una balsa de regadío a la derecha. Una vez en el Valle y discurriendo por parcelaria, la ermita de Santa María de Ullibarri Arana nos dará la bienvenida. Atravesamos el pueblo y otra parcelaria nos acercará hasta Alda, punto final de la etapa.*

## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
## A TENER EN CUENTA

| | |
|---|---|
| • Albeizeko geltokian, ez dago pasabiderik trenbidea zeharkatzeko. Arreta handiz ibili puntu horretan. | • *Las vías de tren en la estación en Albéniz se cruzan sin paso habilitado. Extremar la precaución en este punto.* |
| • Durrumatik Entziara igotzean, baliteke bidea lokaztuta egotea; beraz, igoera ez da oso erosoa izango agian. Azpantarrak baldin badituzu, jantzi itzazu! | • *En la subida a Entzia desde San Román, el camino se puede encontrar embarrado de forma que puede llegar a resultar incómoda la ascensión. Si tienes polainas, ¡no olvides ponértelas!* |
| • Entzian, arreta handiz erreparatu behar zaie markei, ez galtzeko. Egun lainotsuetan arriskutsua izan daiteke nahastea, mendi-ebakia hain gertu izanik. | • *Se debe poner especial atención a las marcas en Entzia para no perderse. En días de niebla un despiste encontrándonos tan cerca del cortado puede resultar peligroso.* |
| • Respeta el ganado que pasta en los rasos de Zezama. En particular, en época de cría conviene no acercarse demasiado para evitar sustos. Si vas acompañado de un perro, llévalo atado en todo momento. | • *Respeta el ganado que pasta en los rasos de Zezama. En particular, en época de cría conviene no acercarse demasiado para evitar sustos. Si vas acompañado de un perro, llévalo atado en todo momento.* |

www.euskadituriismo.eus

